Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna izan zen eta horren inguruan ekitaldi sorta zabala eduki dugu Txorie-rin azarotik abendura bitartean. Ekitaldiok Zamudion izan dira aurten, eta, besteak beste, umeentzako antzerkia, hitzaldiak, bertso-saioa eta musika ekitaldia egon dira bertan. Horrezaz gainera, euskaltegiek, taldeek eta erakundeek ere beste hainbat ekintza antolatu dituzte bailarako gainontzeko herrietan. Txorie-rritarron erantzuna apartekoa izan da beste behin ere.

Ezkerraldean: Tatatxan jauna; behean: umeentzako tailerrak eta Zirika Zirkus pailazoak. Eskualdean, goian: Jon Aroztegi eta Gotzon Zubiar, eta Taberna Ibiltaria; behean: bertsolariak eta Barrelaborategia.





 **volconsa** soluciones
AGLARIANYTAL 80-118 17

**SOLUCIONES PARA PLANTA
DE BOMBEO DE AGUA**

Proveer el agua a la zona de cultivo, de forma
eficiente, segura, rápida y económica.

 **91 644 00 19**
 **91 406 99 15**

soluciones@volconsa.es
www.volconsa.es
Sollés, 1 19400

10 EGUN GUTXIAGO ERABAKIA HARTZEKO... ZEREN ZAIN ZAUDE?

URTARRILA

1	2	3				
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	●	31

OTSAILA

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	●

MARTXOA

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	●	31				

APIRILA

	1	2	3	4		
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	●	29	30		

MAIATZA

				1	2	
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	●	28	29	30
31						

EKAINA

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	●	27
28	29	30				

IRAILA

			1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	19	
20	21	22	23	24	25	26	
27	28	29	30				

ABENDU

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Izenaduba basoa, leku magikoa dago Txorierritik hurbil


Izena duen guztia, bada

Azaroa eta abendua mugimendu handiko hilabeteak dira Izenaduba Basoan. Gabonen atarian gaude, eta Olentzeroren etxeraino ehunaka ume, gazte zein heldu hurbiltzen dira astero, ikazkina ezagutzera. Baina Olentzero ez da basoan bizi den pertsonaia bakarra. Besteak beste, Mari, Tartalo, Basajaun eta galtzagarriak ere bizi dira bertan. Horiek guztiak Aingeru Landa eta Aitziber Olabarrietaren eskutik ezagutu ditugu.






Harrera Mari Teiletakoak egin digu eta hori agurtu ostean, magiaz eta esaundaz betetako basoa agertu da gure begien aurrean. Izenaduba Basoan gaude. "Antzina, gure arbasoek basoan topatzen zuten bizi izateko behar zuten guztia", azaldu digute. Olentzeroren etxerako bidean, lamiak ikusi ditugu errekan, ileak orrazten. Kobazulo batean "sorgin bat" egon da, edabe magiko bat prestatzen. "Beno, sorgina baino, sendabelarrak oso ondo ezagutzen dituen emakumea da. Belar horiek erabiliz, edabe sendagarriak prestatzen ditu. Emakumeak euskal soineko eta buruko tradizionalak ditu jantzi-ta".

Aurrera egin dugu bidean, eta Sugaar Mariren senarra azaldu zaigu bide ertzean. Geldialdixoa egin, eta argazki batzuk ateratzeko aprobetxatu dugu. Panel handi batean Tartalo, Basajaun eta lagunak



Larradent Poliklinika

Arretarako eta zainketa, 7/24
80.000, 1.000.000 eta 2.000.000
larradent@poliklinika.com
Tx 94 434 88 98



- ✓ Dietista
- ✓ Podólogo
- ✓ Odontólogo
- ✓ Fisioterapeuta

topatu ditugu marraztuta, eta guk aurpegia atera dugu marrazkien zuloetatik, istant batez horietako pertsonaia bat garela imajinatuz. Ondoren, larre batera abiatu gara eta Aker ikusi dugu han. Hurbil txondor bat dago, eta horren ondoan, Olentzeroren etxea. "Guk filosofia hau dugu: izena badu, bada. Gure kulturen Tartalo, esate baterako, existitzen da, eta umeez horretan sinestea nahi dugu guk". Horretarako, Izenaduba basoko gidariek hamaika azalpen ematen dizkiete bisitari bidean topatzen diren pertsonaiei buruz, zeinek euskal mitologia eta ohituretan bete-betean murgiltzen baikaituzte.

Landetxo Goikoa baserrira ailegatu gara; Olentzeroren etxera. Ate gainean eguzkilore bat dago eta esan diguten bezala, lore horrek pertsonaia gaiztoengandik babestuko gaitu etxean gauden bitartean. Atea jo dugu eta barrura sartu gara, kuriositatez.

Teknologiaz inguratuta bizi gara eta Olentzero ere modernizatu egin da. Ikazkina pantaila erraldoi batean agertu da eta ongi etorria eman digu. Gu beheko suaren inguruan jarri gara. "Ahozko tradizioa oso garrantzitsua izan da euskaldu-

"Gure kulturen Tartalo existitzen da, eta umeez horretan sinestea nahi dugu guk"



nontzat. Antzina, familia beheko suaren aldamenean esertzen zen eta aitita-ama-mek ipuinak eta istorioak kontatzen zizkieten ilobei. Olentzeroren etxeko bisitaldia ere horrela hasten da".

Galtzagorrien atzetik

Olentzero desagertu denean, leku batetik bestera ibili gara etxean zehar. Gela guztietara sartu gara eta ganbarara ere igo gara. Apur bat gehiago ikasi dugu ikazkinaren jatorriari buruz, eta baserriaren inguruko ohiturak ezagutzeko aukera izan dugu. Eta bat-batean, sasti!, Olentzeroren baso magikora jotzen duen ate sekretua deskubritu egin dugu.

Baso magikoan lamiak batu dira; eta jentilak, galtzagorriak, Mari, Basajaun...

Olentzero azaldu zaigu berriro, eta basoan bizi diren alegiazko izakien gaineko istorioak kontatu dizkigu. Berak esandako guztia egia dela egiaztatu dugu joko interaktiboaren bidez. Gu galtzagorriak harrapatzen ibili gara; harrapatu eta orratzontzian sartzen. Baso magikoan Haritz Sakratua ere badago. Zuhaitzaren adarretara igo eta sustraietara jaitsi egin gara.

Beste ate sekretu batetik Izenaduba basora itzuli gara. Mariren kobazulora sartu eta ipurdiz atera gara handik, Aingeru eta Aitziberrek jainkosari bizkar ematea ideia ona ez dela esan digutelako. Tartalo haritz baten gainean eserita ikusi dugu; eta guk, zuhaitzetik irrist egin behar. Ostean, Basajaunen bila joan gara eta bere labirintoan galdu egin gara. Topatu egin

dugu; nola aterako?

Etorritako bidetik itzuli gara basoaren sarrera. 3D-ko simulagailura eraman gaituzte; gerrikoa ondo lotu eta betaurreko bereziak jantzi ditugu. Galtzagarriak hortzat lapurtu dio Mari Teiletakoari eta berreskuratu behar izan dugu. Intsektu magikoaren gainean guztiz hegaldi azkarra egin dugu, hortza lortu dugun arte.

Argia eman ilunari

Izenaduba Basoa Euskal Herriko lehenengo parke mitologikoa da eta 2007ko abenduan jarri zuten abian. Proiektuaren historia kuriosa da. Landetxo Goikoa baserria zahartuta eta erabilera barik zegoen eta Mungiako Udala etxearekin zer egin aztertzen hasi zen. Baten batek Olentzerok etxe ofizialik ez zuela gogoratu zuen, eta ikazkina bertan bizi ahalko zela otu zitzaion. Proiektua forma hartzen joan eta Izenaduba Basoa parke mitologikoa bilakatu zen.

Parkeak euskal mitoak, tradizioak eta ohitura zaharrak, modu hezigarri eta ludiko batean, txikien eta gaztetxo-en artean zabaltzea du helburu. Horreta-

Ilusioa ezin da zapuztu

Abenduaren 15ean sorpresa txarra hartu zuten Izenaduba Basoko langileek lanera ailegatu zirenean. Norbaitek pintadak egin zituen parkean eta horrezaz gainera pertsonaia batzuk apurtu ere egin zituen. Hala ere, umeen ilusioa ez zen bertan behera gelditu, parkeak zabalik jarraitu baitzuen konponketa lanak egiten ziren bitartean.




rako, bisitariak Olentzero, Lamiak, Basajaun, galtzagarriak eta gainontzeko pertsonaia mitologikoak izango dituzte bidaia-lagun. "Euskal mitologia euskal curriculumean dago sartuta gaur egun, eta ikasleek zein irakasleek eskolan ikasitakoa praktikan lantzeko aukera dute bertan. Edo bertan ezagutu eskolan ikasiko dutena". Parkearen arduradunek ikasleen adinaren arabera programa ludiko-didaktikoak prestatu dituzte, Lehen Hezkuntza eta Batxilergoko ikasleek era dibertigarri batean murgil daitezzen euskal mitologiaren munduan.

Olentzeroren Baserrian antzinako lagunak nola bizi ziren ezagutuko dute, beheko suaren garrantzia, bihitegia non zegoen edo etxearen barruan nola banatzen ziren gizakiak eta animaliak, besteak beste. Baserrian Olentzero eta lagunak bizi dira eta bisitariak mundu magiko baten protagonistak izango dira. Mundu magiko hori joko elkarrengilean eta ikus-entzunezko edukien bitartez ezagutuko dute, baserria XVI. mendekoa bada ere, azken teknologiez baitago hornituta. "Mitologia gai iluna da, eta gu




Loiumat

materiales de construcción







Tolosa bilaketa: 41-491180 10210 • Tel: 94-493 04 51 • Fax: 94-493 25 07 • loiumat@loiumat.com • www.loiumat.com

teknologiaren bidez argi apur bat eman nahi izan diogu; xarmangarriagoa egin”.

Kultura anitza

Bisitariak aisialdirako eskaintza aparta dute 6.000 metro karratuko ingurune misteriotsu eta magikoan. Aipatutako jokoez gainera, 3D-ko simulagailua, ikus-entzunezkoak eta kanpoko jolasak ere badute euren esku. Guztiek dute zerikusia mitologiarekin.

Baina Izenaduba Basoa ume eta gaztetxoei ez ezik helduei ere badago zuzenduta, eta bisita gidatuak antolatzen dituzte euskaltegiko ikasleentzat eta elkartee-tako kideentzat. Familia ere bada parkeko arduradunek zaintzen duten beste esparru bat. “Guk familia osoa hona etortzea nahi dugu, eta elkarrekin ekingiza ludikoa egiteaz gainera, apur bat gehiago ikas dezatela gure kultura eta tradizioei buruz. Hau ez da soilik umeentzako kontua,

“Izenaduba Basoa Euskal Herriko lehenengo parke mitologikoa da eta euskal ohitura zaharrak ume zein helduen artean zabaltzea du helburu”

inportantea da proiektua helduengana ere zabaltzea, gure kultura oso anitza dela ikus dezaten”.

Gabon garaian lan handiagoa bada ere Basoan, parkea urte osoan zehar dago zabalik. Bisitaldi guztiak gidatuak dira eta horregatik komeni da hitzordua aldez aurretik eskatzea. Bisitak euskaraz zein gaztelaniaz egiteko aukera dago eta hizkuntza bietan ere egin daitezke autogiden bitartez. Sarrerak Izenaduba Basoan bertan eskura daitezke, BBK-ko zerbitzu anitzetarako kutzazainetan, telefonoz edo Basoaren webgunean.

Informazio gehiago:

Izenaduba Basoa. Olentzeroren Baserria.
Landetxo Goikoa.
48100 Mungia
Telefona: 94 674 00 61
www.izenaduba.com
olentzero@izenaduba.com

Landetxo Goikoa, baserri magikoa



Olentzero Landetxo Goikoa baserrian bizi da, Mungian. Hori Bizkaiko baserri zaharrena da; eta Euskal Herriko zaharrenetariko bat. Etxea 1507. urtean altxatu zen, eta hurrengo garaietan eraiki ziren baserrien eredu finkatu zuen, Euskal Herriko baserrien historian aro berri bat zabalduz.

Eraikin bitxia da Landetxo Goikoa; euskal kultura, tradizioa eta folklorea batzen dituen. Baserria guztiz zaharberitu dute, baina antzinako egitura aldatu gabe. Bitxikeria moduan aipa dezakegu oholak matxinbratuta daukela. Sistema horri esker, eraikina hermetikoki ixten da eta barrualdea hotzetik babesten da. Baletan zebiltzan arrantzaleek teknika hori bikingoengandik ikasi zuten. Baserriaren egitura guztia agerian da eta hura ikertu duten adituek baserria arkitekto espezializatu batek egin zuela atera dute ondorio, baita baserriaren jabeak abe-ratsak zirela ere.

Landetxo Goikoak duen ezaugarri garrantzitsua barruko antolaketa da, areto bakoitza zeregin zehatz baterako erabiltzen baitzen. Baserria fabrika baten antzekoa da, izan ere, dena dago ekoizpenerako pentsatuta. Zerealak eta baserrian ekoiztutako produktuak sikatze eta biltze

tokia du, ukuilua, tximinia handia areto guztiak epel mantentzeko...

Baina fabrika izateaz gainera, tenplu edo gune sakratua ere bada, magia, mitoak eta sineskerak biltzen dituen. Horren haritik erakusketa ezberdinak antolatu dira etxearen barrualdean eta, besteak beste, baserriaren eguneroko objektuen gaineko sineskerak ezagutzeko aukera izango dugu bertan. Era berean, funtzio magikoa eta sinbolikoa zuten elementuak topatuko ditugu nonahi: eguzki-loreak atean, elaien habiak atarian, sua eta ikatza sukaldean, igitaia, aizkora, ferra...



Hurbileko informazioa, hurbiletik

Topagunea Euskara Elkarteen Federazioaren kide diren herri aldizkariak horien elkarlana eta talde-izaera azpimarratzea helburu duen TOKIKOM marka bateratua sortu berri dute. Txorierriko irakurleok TOKIKOM ikurra ikusita duzue dagoeneko AIKOR! aldizkariaren mantxeta berriaren alboan. Proiektuaren arduradunek eman dizkigute zehetasunak.



a: Topagunea

Zer da TOKIKOM?

Joxe Rojas (Topagunea): Ditugun azken datuen arabera, tokiko aldizkariak hedabiderik indartsuenak dira bakoitza bere esparruan, baina ezezagunak dira euren mugetatik kanpo. TOKIKOM proiektuaren asmoa hedabideon talde-izaera eta kohe-sioa indartzea da, barrura zein kanpora begira. Tokiko hedabideen sektorea irudikatzen duen ikurra da.

Zergatik sortu da?

Eneko Azkarate (Goienkaria): Topagune-ko euskarazko hedabideok anitzak gara, maiztasun, formatu eta itxurari dagokienez. Baina badira guztiok komunean ditugun ezaugarriak: populazio oso-ari zuzendutako hurbileko informazioa lantzen dugu, gai orotarikoak... Liderrak gara gure esparruan, eta, era berean, tokian tokiko hedabide guztien baturak lider bihurtzen gaitu euskarazko zein erdarazko hedabideen artean.

Xabier Goienetxe (AIKOR!): Ezaugarri komun horiek azpimarratzea eta indartzea da kontua. Aniztasunari uko egin gabe, talde-izaera ere badugula gizarterratzea. Eibarko lagun batek beste herri bateko aldizkaria topatzen duenean, horrek bere herrikoarekin zerikusia duela jakin dezan. Eta elkarlanerako kanalak irekitzea ere bai, noski. Zenbait arlotako informazioa partekatzea, eta, zergatik ez, guztiok batuta 220.000 irakurle baino gehiago izateak ematen digun indarra balia-



"Irakurleek aldizkari guztien titularrak jaso ahal izango dituzte zuzenean, tokikom.com webgunean"

Jasone Mendizabal (Topagunea): Esan bezala, aniztasuna da nagusi tokiko hedabideen artean, baita indar eta baliabideei dagokienez ere. Horren arabera, bazkide- etako batzuek euren egoera finkatzeari begirako lehentasunak ezarri dituzte, eta TOKIKOMen sartu ala ez aurrerago erabakiko dute. Guk aniztasun hori errespetatu nahi izan dugu lehen momentutik, eta ziur gaude epe ertainera hedabide bazkide guztiak egongo direla proiektuaren barruan. Baina argi dugu bakoitzak bere erritmoan egin behar duela.



TOKIKOM osatzen duten aldizkariak

- | | |
|---|---|
| –...eta kitto! (Eibar) | –Goienkaria (Debagoiena) |
| –AIKOR! (Txorierrri) | –Guaixe (Sakana) |
| –Aiurri astekaria (Beterri-Buruntza) | –Hernaniko Kronika (Hernani) |
| –Aiurri hamaboskaria (Beterri-Aiztondo) | –Karkara (Aia, Orio) |
| –Anboto (Durangaldea) | –Otamotz (Urretxu-Zumarraga) |
| –Asteleheneko Goienkaria (Debagoiena) | –Pil-Pilean (Soraluze) |
| –Barren (Elgoibar) | –Prest (Deustualdea) |
| –Begitu (Arratia) | –Ttapi-Ttapa (Baztan-Bidasoa-Malerreka) |
| –Berton (Mahatserria) | –Txintxarri (Lasarte-Oria) |
| –Drogetenitturri (Ermua, Mallabia) | –UK (Uribe Kosta) |



HEURICH
ALBERTO

La nostra è la migliore, la
più grande e la
più grande d'Italia

kma
Küppers & Mathias AG
Küppers & Mathias AG
Küppers & Mathias AG

Intelligence united. ePersonal united.

Handmade. eUnited.

DEUTSCH: 0800 1 91 91 91 91

Manufacturing: 19111 eUnited AG
19111 eUnited AG
19111 eUnited AG

BAZZANO'S
ITALIAN RESTAURANT
10000 W. 10th Ave., Suite 100
Golden, CO 80401
(303) 440-8800

t/a: José M. Quijano

Urria hilebete egokia da erromesen-tzat. Udako beroa atzean lotu da eta ne-guaren laztasuna etorteko dago oraindi-no. Ganera, bidaiariari begiak alaitzen deusiezan koloreez tintatzen dira zelaiak. Agirian dagoz udagoieneko tonu gorri-zakak, zeinek orri iraunkorreko landaren berdeakaz, lurraren okreakaz eta zereal-soloen beilegiakaz batera Bidearen kolo-re-paleta osatzen daberen.

Salamanca eta Zamorako paisajea oso bestelakoa da Extremadurakoagaz alde-ratuta. Desertua agertu da, monotonía eta gogortasuna lagun dituala. Arteak le-kua itxi deuto haretxari, eta lursail estre-madurarrak zereal-solo eta mahasti bi-hurtu dira Ardaoaren Lurraren Eskual-dean.

Astorgara ailegetea genduan helburu, Frantziako bideari heltzeko, baina, Zamo-ran gengozala, mendebalderantz jotzea erabagi genduan, Sanabriako bidetik edo atxinako bide mozarabiarretik. Izan be, mobimentu gitxiko bidea izan arren, as-koz jatorragoa da. Beste ibilpide batzue-tako aglomerazioetatik urrun, babesa da Bideagaz bat egin gura dogunontzat. As-mau genduala uste dot. Atxina, Done Ja-kue Bidea egiten eben erromesek bide hau erabilten eben, Astorgakoa barik. Az-ken hori Frantziako bidearen azpiegiturei esker ibilpide erosoagoa bihurtu zanean hasi zan erabilten.

Zaharra; betikoa

Peninsula hegoalde-tik, erromes mo-zarabiarrek Sanabriako mendiak zehar-tzen ebezan, Santiagora Ourensetik sar-tzeko. Almanzor buruzagi musulmanak be ibilpide hau erabili eban X. mendean Compostela arpilatu ostean. Era berean, X. eta XI. mendeetan, monje-taldeek Kor-dobatik urten eben iparralderantz, helbu-ru bi ebazala: alde batetik, monasterioak




Bide mozarabiarra

Igaz, Zidar bidetik ekin geuntsan Donejakue Bideari, eta Merida eta Salamanca arteko etapa egin genduan. Aurton, Salamanca eta Puebla de Sanabria bitarteko ibil-pidea egin dogu.

*“Beste ibilpide batzuetako
aglomerazioetatik urrun,
bide hau babesa da
Bideagaz bat egin
gura dogunontzat”*

eregitea (Eskaladako San Miguel, Carrio-neko San Zoilo edo Lebeñako Santa Ma-ria, batzuk aitatzearren); eta bestetik, erromesaldian ibili eta erlikia sagraduak egozan lekuak bisitetea (Compostela, León, Oviedo, Liébana...). Jente, salgai eta idea-etorri horri erantzuna emoteko, herri arabiarrek orduan egoan bide erromata-rra egokitu baino ez eban egin behar. Bide zaharrak; betiko bideak. Astorga eta Braga lotzen ebazan galtzada erromatarra



Lawrence | Holland

2003ko otsailaren 20an, Guardia Zibilak Egunkaria itxi zuen, Juan del Olmo epailearen aginduz. Epaiketa abenduan hasi da eta akusazio bakarra AVT eta Dignidad y Justicia elkarteena izan da; fiskalak, ordea, kasua artxibatzeko eskatu du.

Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleagari ETako kide izatea leporatu diete eta 12tik 14 urte bitarteko espetxe zigorra eskatu dute haientzat. Horrezaz gainera, beste zortzi lagun daude auzipetuta auzi ekonomikoaren barruan. Oleaga Zamudiora etorri zen, epaiketa hasi baino lehen, Egunkaria kasuari buruzko zehaztasunak ematera.

“Euskal gizartea ezi *Egunkaria* kasuan, ezta


XABIER OLEAGA | *Egunkariako* erredaktoreburua izana





Kitchen sukaldeak

Berrien sukaldeak, kalitate onak sukaldeak



PRINCIPIA FORNITS FORNITS TERTIA APTOSK

ESPORRUKA BOKORUL L EN UNIBERGULARO BIL GARUK

n da ezaxola izan ez beste hainbatetan ere”

t: Gotzon Barandiaran

AIKOR! kalean egon orduko hasita egongo da epaiketa. Zelako itxaropenarekin zoazte?

Egunkaria kasua hain da salbuespenekoa, non zaila egiten zaigun nola amaituko den aurreikustea. Gurea bezalako akusazio-oinarria duten beste kasu batzuetan zer pasatu den ikusiz gero, inola ere ezin gara baikorrak izan. Eta Egunkaria kasuak berak orain arte nolako ibilbidea izan duen ikusten bada, horretan ere ezin gara baikorrak izan. Baina Auzitegi Nazionalaren historia osoan, gurea bezalako akusazio-oinarria izan duten kasuak kontuan izaten baditugu, ez dago kasu bakar bat ere fiskalak artxibatzeko eskatu duenik; gurea da bakarra. Ikuspegi juridiko batetik begiratuta, hori da aldatearik handiena beste kasu guztiekin alderatuta. Hori horrela izanik, geure buruari galdetzen diogu Egunkaria kasuan ez ote den beste mota bateko epaia izango.

Baina epaiketa hau ez da juridikoa...

Konbentziturik gaude ez dela juridikoa; beraz, egoera politikoak eragina izango du, ziur asko. Eta horretan bai ez garela aurreikuspen bat egitera ausartzen.

Herritarren erantzunak, Euskal Herri-ritik egiten den presioak, zelanbaiteko eraginik izango du epaian, zure ustez?

Distantzia handia dago Euskal Herri-rik Espainiako erreinuaren metropolira; eta distantzia kulturala, soziala eta politi-

koa, askoz handiagoa da. Ez dakigu Auzitegi Nazionaleko epaileen belarrietara iristen den euskal gizartearen oihartzuna. Baina hara iritsi edo ez, euskal gizartea ezin da ezaxola izan ez Egunkaria kasuan, ezta beste hainbatetan ere. Ezaxola balitz, orduan bai, Madrilgo epaile eta politikarrien belarrietara iritsiko litzateke oihartzuna, eta jasango genituzke ondorioak.


Fiskalak ez du ezer agertu zuen kontra; bai, oster, AVT eta Dignidad y Justicia elkarteek. Argia aldizkarian argitaratu dute, esate baterako, badela susmoa harreman estu-estua dagoela poliziaren eta azken elkarte horren artean.

Faisan auzia etorri zait gogora. Zerga iraultzailea deitutakoaren harira, atxiloteketa batzuk izan ziren, baina auzia judizialki itxi zen azkenean. Partido Popular alder-

dia eta poliziaren zati batzuk –Guardia Zibila, zehazki– horren kontra azaldu ziren. Dignidad y Justicia elkarteak ekimen juridiko bat eraman zuen aurrera, kasua berriro ireki zedin. Eta orduan argudiatu zuten kasuak ikerketa independente bat behar zuela eta horretarako egokiena Guardia Zibila zela. Neurria gauzatu bezain laster, Guardia Zibileko Union de Oficiales erakundea agertu zen, Dignidad y Justicia elkarteak eskatutako ekimenarekin bat egiten zuela esanez. Hortik aurrera bakoitzak atera ditzala bere ondorioak.

Laster zazpi urte beteko dira hau guztia hasi zenetik. Zelako eragina du zuen bizimoduan?

Honelako zama bat bizkarrean eroateak luzeago bihurtzen ditu urteak; eta pisutsuago. Ez da soilik norbera, baizik eta norberaren familia, ingurua... Zama hori familiaren etorkizunaren gainean sentitzen da. Eta ziurgabetasunak ere pisu handia du; nire kasuan, adibidez, zigor epaia aterako balitz, 12 urte eman nitzake espetxean, eta hirurogeitaz urterekin irtingo nintzen handik... Eta familia hor gelditzen da; gelditzen den moduan...



t: Gaizka Eguskiza / a: Foto Celso

Zelan eta noiz sortu zen elkartea?

Elkartea 2004an sortu genuen. Hasiera batean, egitasmoa Txorierri mailan bultzatu zuen Behargintzak, baina proiektuak porrot egin zuen. Guk lekukoa hartu eta Derion eratu genuen elkartea. Larrabetzukoek ere zerbait bultzatu nahi izan zuten, baina azkenean ezerezean gelditu zen. Lehen, bakoitza bere kabuz aritzen zen, baina pentsatu genuen, batera ibiliz gero, erraztasunak lortzeko aukera izango genuela, bai Udalari begira, bai bankuei begira, besteak beste.

Nortzuek osatzen duzue elkartea?

Guztira, 90 bat bazkide gara. Ia denda guztiak daude sartuta. Zerbitzuei dago-kienez, ordea, guztiak ez dira bazkideak. Denetarik merkataria eta zerbitzuak dau-de: abokatuak, aholkulariak, janari den-dak, ile apaindegia...

Zelako abantailak dakartza bazki-de izateak?

Guztiok ezagutzen dugu elkar, eta horrek batasuna eman digu. Babesa eta laguntza ematen dizkiogu elkarri.

Zergatik merezi du Derion eroste-ak?

Dena eskaintzen dugu Derion. Hurbil gaude eta hurbilak gara. Jokaera atsegina dugu. Eta denetarik topatu ahal duzu herriko dendetan. Ez da beharrezkoa kan-pora joatea. Eta gure dendek bizitasuna ematen diete herriari eta haranari. Txorie-rriko motorra gara, nolabait esanda.

Beste herri batzuetan merkata-ri-tza-gune handiak dituzte lehiakide, baina hemendik gertu bat ere ez dago. Nondik datorkizue lehia?

Bilbotik, batez ere. Trenez 20 minutu ematen duzu Txorierri hiriburura joateko; eta 5, kotxez joaten bazara.

Zelan bizi duzue krisialdia?

Tira! Nabaritzen dugu. Batzuk txarto ari dira pasatzen, baina momentuz eus-ten diogu. Oraindik denda bat ere ez da

“Bizitasuna ematen diog

Merkataritza bizitasuna dela dio iragarki batek, eta horixe bera pentsatzen dute Danerik paraje! Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako Elkarte Profesionalaren ordezkariak. Iñaki Molano, Ane Aretxabaleta eta Susana del Pozo baztarkideekin egon gara solasean, eta elkartearen berri eman digute.



*“Dena eskaintzen dugu
Derion; merkatariorik
hurbil gaude eta
hurbilak gara; eta
denetarik topatu ahal
da herriko dendetan”*

itxi krisia dela-eta.

Gabonetan gaude eta garai ona da merkatarientzat. Zer espero duzue zuek?


laz baino okerrago ibiltzea, baina azken hilabeteotan baino hobeto. Abenduan langile askok aparteko ordainsaria dute. Hori dela-eta, gehiago kontsumitzen da Gabonetan, eta hori onuragarria da beti guretzat.



u Txorierriri”

Zeintzuk dira gabeziarik handienak?

Aparkatzeko arazoa. Hemengoak ez diren merkataritza batzuek lekua ere alokatu behar izan dute. Herrigunean asko gaude eta askotan Aldekonekoak edo txaletetan bizi direnak autoz etortzen dira alde zaharrera. Gainera, beste herrietako lagun batzuk ere automobiler hurbiltzen dira bertaraino, gero trena hartzeko. Ondorioz, ibilgailu pilo bat eta aparkatzeko leku gutxi egoten da herrian. Eta hori gure kontra doa. Izan ere, jendeak eroso erosi nahi du, eta autoz joatea gustatzen zaio. Eta hemen automobila uzteko lekurik ez badago, beste leku batera joango dira. Beste alde batetik, Udaltzaingoak zorrotz-zorrotz jokatzeko du. Hainbat aldiz eskatu diogu Udalarari irtenbideren bat topatzeko. Esaterako, institutuaren alboan dagoen aparkalekua edo parke berriaren azpian leku gehiago eraikitzea proposatu diogu, baina alferrik!



Ekitaldiak, bor-bor

Eskaintza oparoa herritarren eskura jartzeaz gain, Derioko merkatariek eta zerbitzu-hornitzaileek herriko bizitasuna piztu nahi dute. Horretarako, hainbat ekintza antolatzen dituzte urte osoan. Adibidez, azaroan gala bat egin zuten, eta aurten, lehenbiziko aldiz, moda desfilea antolatu dute kalean. “Urtero le-

gez, derioztarrek hartu dute parte, eta horregatik arrakastatsua izan da”. Hil berean merkataritza txartela atera zuten bezeroen fideltasuna lortzeko. Horri esker, beherapenak eman eta gastutako diruaren arabera opari-txekeak ere eskaintzen dituzte. Umeentzako Gabonetako jaia eta erakusleiho lehiaketa ere antolatzen dituzte elkarteek.

Baina aurten beste ekintza bat izan da nabarmenena. “Derioztarrek ezagutzen gaituzte, eta gure eremua industrialdeetara zabaldu nahi izan dugu. Herriaren inguruan hainbat enpresa daude eta bertan langile asko daude. Oso hurbil lan egiten duten arren, Derion zer dagoen ez dakite, ziur asko. Horregatik, geure jarduera gerturatu nahi diegu eta dendeak, zerbitzuek eta tabernek zein jatetxeek osatutako gida plazaratu dugu. Bazkide bakoitzak bere eskaintzaren berri eman du (zerbitzuak, telefonoa, helbidea...) eta lantegietan eta bulegoetan banatuko ditugu. Horrela, eskura izango dute, Derion zerbait erosi nahi izanez gero”.



ANTZERKIA

OSTENEN JOKU, LAURDI
“EL VINO DE UN PROJO LLAMADO MATIAN”
El teatro Regio
Castellón de la Plana, Castellón
Jueves 17 de octubre a las 20h.
Entradas 5€.

ZINEA

OSTENEN JOKU, LAURDI
“THE BOY IN THE STRIPED PAJAMAS”
(2012, 110)
+12 urte, 12€.
+10 urte, 7€.
Fotografia: Ben Smith
Musika: Anthony
Kilmer
Gidoia: John Boyne
Zuzendaria: Mark
Patterson

HITZALDIA



Ostengaitza 27an, 19:00etan
“THE GREAT MOUNTAIN
FALLINGDOWN AND
GASTROGROWING UP II”
Gazteak 2009an
Nabarra Kulturaren
Zentroan

t: Mikel Etxebarria, fisioterapeuta

Bruxismoa haginak estutzeko edo karraskatzeko ohitura da, eta ondorioak haginetan, juntura tenporomandibularretan eta garondoko hezurretan izaten ditu. Bruxismoaren arrazoi nagusia emozio tentsioa da. Estres edo antsietate egoerek gauean ere eragiten diete, oharkabe, estutzen duten giharrei. Beste arrazoi pisutsu bat gure hortzak txarto bermatzea da. Ondorioz, gure matrailezurak etengabe aritzen dira mugitzen, hortz piezen arteko bat-etortze perfektua lortzeko.

Matrailezuraren, buruaren eta samaren artean bada zuzeneko erlazio anatomiko bat. Alde horietako edozeinetan gehiegizko tentsiorik badago, eragina izaten du gainerakoetan. Haginak estutuz gero, matrailean ez ezik, lokietan eta samaren goiko aldean ere sentituko dugu tentsioa, eta buru mugimendu txiki batzuk egingo ditugu.

Hortaz, mugimendu murriztuko alderdirik egonez gero, etengabeko estutzeek ez dute besterik egiten alderdi horretan sortzen diren tentsioak areagotu baino, eta mina matrailean, saman eta buruan sortuko da.

Terapiak bideratuta daude edozein eratako minak kentzera eta haginka egitearekin zerikusia duten artikulazio eta gihar estruktura guztiei oreka itzultzera.

Terapiak

Mina matrailean, belarrian, buruan eta samaren goiko aldean egoten da, baita


sorbaldetan ere, eta min hori biziagoa izaten da goizean ohetik jaikitzen garenean, eta desagertuz joaten da eguna igaro ahal. Fase honetan, tratamendua emateko aukera bat fisioterapia da, efektu analgesikoak eta anti-inflamatorioak lortzen baititu inbaditzaileak ez diren tekniken bidez. Tratamendu horien artean daude katu puntuak sakatzea, TENS motako estimulazio elektrikoa egitea edo ultrahotsak edo laserra aplikatzea.

Oreka behar den alderdian berreskuratzeke, garrantzitsua da tentsioan egon-

dako estruktura erlaxatzea. Horretarako, oinarritzkoak dira masajea, beroa/hotza edo gihar luzatzeak. Gihar tentsio horren ondorioek artikulazio zabalatasuna murriztea ekar dezakete eta eskuzko artikulazio teknikak erabiliz zuzendu beharko da.

Funtsezkoa da hori guztia erlaxazio teknikekin konbinatzea, estresa eta antsietatea kontrolatzeko, eta deskarga oholtxoak erabiltzea, haginetan eta matraileko artikulazioetan presioa murrizteaz gainera, haginkadaren oreka itzultzen saiatzen direlako.


Bruxismoa eta orno zerbikaleko mina





Bizian

Fisioterapia & Osteopatia




bentitu zeure
gorputzean
buntza kalitatea

Erribilla: Solina Auzoa
1. floor, 1. planta - 17
Muel Lekuak 17. sarrera
48900 Leizorako - 124
1000 m. alt.

Zamakoia 31. behe
48900 Leizorako
Tel: 944 562 279
Fax: 944 498 577
www.bizian.es



BIZKAIKO NEKAZARIEN KOOPERATIBA ETA ELKARTEAK



LORRA, S. COOP.

Benta Garbaitza, n°23
 48128 LEZAMA (BIZKAIA)
 Tel. 94 455 50 53 / Faxa. 94 455 52 45
 e-mail: lorra@lorra-coop.net

Astrapala taldea

“Konpromisoa Lezama eta lezamarrakaz dogu”

Herritarren artean musikea zabaldu eta euskal kultura sustatutea. Helburu horregaz jaio zan igazko udagoieneran Astrapala musika talde lezamarra. Proiektuaren arduradunek kontau deuskuez taldearen nondik norakoak.



Zelango gabezia ikusi zenduen herrian, musika arloan?

Jentea badago musika munduan dabilena, edo euskal kantak ezagutzen dituen; baina, gero, hori ez da nabaritzen kalean. Eta pentsau genduan zerbait egin ahal zala, musikea be herrian antolatzen diran ekintzetan egoteko. Herriko musikari batzuk batu eta Astrapala sortu genduan. Besteak beste, lezamarrek euskal kantak abestera animau, eta gure emonaldietan parte hartu daiela gura dogu. Baita gazteek euskal kantak be badagozala jakin daiela be.

Eta taldean bost musikari bazarrie be, kanpoko laguntzea dozue behar horretan...

Bai, herriko zein kanpoko musikari asko etorri dira gugaz jotzera: Alaitz Gana

“Astrapala oso proiektu integratzailea da; gura dauan guztiak hartu daike parte bertan”

eta Larraitz Rike txalapartariak, Fede de Dios dultzaina-jolea, Harkaitz Allur trikitilaria, Katalin Zarate pandero-jolea, Itsaso Arrieta eta Alberto Olabarrieta (ahotsak)... Gurea oso proiektu integratzailea da. Gura dauan guztiak hartu daike parte bertan.

Zein motatako errepertorioa dozue?

Astrapalariak

- Leire Iturrioz:** pianoa, txirula
- Iñaki Aretxabaleta:** bibolina, didjeridua
- Mikel Diaz:** gitarra
- Gorka Zarate:** alboka, dultzaina, txirula, txistua
- Gaizka Peñafiel:** trikitia, bodhran, whistle, gitarra

www.myspace.com/astrapala

Danetarik lantzen dogu. Azken emonaldian, esate baterako, Mikel Urdangarienen kanta bat jo genduan. Halanda be, euskal kanta tradizionalak batez be landu arren, mundu horretatik apur bat harago joan gura dogu, kanta horreek jorratzen dabezan talde asko dagozalako gaur egun. Hau da, guk hain ezagunak ez diran euskal kantak berreskuratu eta jenteari irakatsi gura deutseguz. Eta batek daki! Etorkizunari begira, apurka-apurka geure errepertorioa lantzea be baleiteke.

Zelango ekimenak eroan dozuez aurrera gaur egun arte?

Herriko jaietan eta beste ekimen batzuetan hartu dogu parte, eta ume zein gazteei zuzendutako tailerrak antolatu doguz eskolan, ludotekan eta gaztegunean. Gaztetxoek musikea gauza dibertigarria dala ikustea gura dogu, eta gazte-gazterik musikarako zaletasuna izan daielea. Herritarrek pozik hartu dabe proiektua.

Lezamatik kanpo jotzeko gonbidapenik jaso dozue?

Bai, baina emonaldiak herritik kanpo egiteak beste konpromiso mota bat eskatzen dau, eta guk momentu honetan ez dogu astirik horri heltzeko. Gurea herri mailako proiektua da eta konpromisoa Lezama eta lezamarrakaz dogu. Dana dala, ateak be ez doguz itxen.

DOAKO IKASTAROAK 2010



Langabetuentzat

GERIATRIA-I AGUNTZAILE ETA ALZHEIMER GAIXOEI ARRETA ESPEZIALIZATUA EMATEKO IKASTAROA

Data: 2010eko urtarrilaren 25etik
martxoaren 30era arte

Ordutegia: 9:30 -13:30
astelehenetik ostiralera
Lekua: Behargintza Txorierri

FITNESS ETA TALDEKO JAR- DUEREN KIROL-MONITORE IKASTAROA

Data: 2010eko otsailaren 1etik
apirilaren 30era arte

Ordutegia: 09:00 -14:00,
astelehenetik ostiralera
Lekua: Portugalete

MEKANIKA ETA AUTOEN MANTENTZE-LANEN IKASTAROA

Data: 2010eko otsailaren 1etik
ekainaren 30era arte

Ordutegia: 15:00 -20:00,
astelehenetik ostiralera
Lekua: Irapagaran

KALITATE, PREBENTZIO ETA INGURUMEN SISTEMA INTEGRATUEN IKASTAROA

Data: 2010eko otsailaren 8tik
maiatzaren 30era arte

Ordua:15:00-19:00,
astelehenetik ostegunera
Lekua: Bilbo

Informazio gehiago eta inskripzioa

BEHARGINTZA TXORIERRI - FORMAZIO ERREA
Berebizioa: induraketa 13 A - Berritza (Gizakia)
Tel. 944531318 - Fax: 944531314
behargintza@txorierri.com - www.txorierri.com

Diraalko Foru Aldundien Ekonomik
Europar Batasun eta Europako Oinarri
Fondokelakuz lagundua.



Aukeratu zeure hizkuntza



*Opentrad kode irekiko
itxultzaile automatikoak
hainbat hizkuntzatan
egiteko aukera
ematen du*

itzultzeko. Beste batzuek, aldiz, enpresa-webguneak, webgune pertsonalak, blogak eta abarrak ingelesera, frantsesera, katalanera edota galegora itzultzeko erabiltzen dute.

Programa oso erabilgarria da dokumentazioa hainbat hizkuntzatan azkar sortzeko, edo webgunea hizkuntza askotan denbora errealean izateko. Gainera, enpresak eta administrazioak nazioartearatzeko aukera ematen du Opentradek. Era berean, itxultzaile horrek software librearen filosofiari jarraitzen dio eta, ondorioz, zenbait abantaila ditu. Esate baterako, mundu mailako komunitate oso batek sistemarentzako hobekuntzak etengabe garatzen dihardu. Beste alde batetik, teknologian eginiko inbertsioa optimizatu ahal da, lizentziarik erostea beharrezkoa ez baita.

Informazioa: www.opentrad.com

Ingelesa hizkuntza nagusia da orde-nagailuetan eta teknologia berrietan, oro har. Baina internauta guztiok ez dugu ingelesez egiten, eta askotan gorriak ikusten ditugu sarearen edukierak ulertzeko. Arazo hori Opentrad kode irekiko itxultzaile automatikoari esker konpon daiteke. Eleka Ingeniaritza Linguistikoa eta Imaxin-Software enpresek garatu dute programa. Estatuko hizkuntza guztietarako diseinatu da, eta doan erabil daiteke. Gaur egun, 20 hizkuntza bikote baino gehiagoren arteko itzulpenak egin daitezke:

ingelese eta frantsesa, katalana, galegoa edo euskara. Opentrad-ek itzulpen aukerak ahalik eta gehien zabaltzea du helburu.

Programak erabiltzaileak nahi duen moduan konfiguratzeko aukera ematen du, norberaren beharretara egokituz: linguistikoki, erakunde bakoitzaren estiloliburura egoki daiteke-eta; eta teknikoki, IP sareetan edo beste sistema batzuekin erabat integratu ahal baita. Gaur egun milaka lagunek erabiltzen dute Opentrad testuak, dokumentuak eta webguneak

PIENSAPIEN DARRIK
Euskarazko
Linguae-linguae
2009ko 10. edizioa
1. edizioa: 2009ko 10. edizioa

Berriketza: A. Riera & A. Riera
T: 84 454 00 00

**Comissaria
Charakteria
IMAZ**

IMAZ-eko
IMAZ-eko
IMAZ-eko

Marcos Maider

Marcos Maider
Marcos Maider
Marcos Maider

WAFETECIA
IAZI
JATETxea


WAFETECIA
IAZI
JATETxea

DERIO

DERIO
DERIO
DERIO

Olentzero buru handia

(*) Ahozko moduan
esaten dana, letra
baltzez doa



t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

–Egun on, Luki!
–Halan esan beharko!
–Zer pasetan jatzu Luki?
–Gabonetan Olentzero izateko eskatu
deustie, aurtien bere.
–Zelako txoiloa Luki! Ala ez dozu
gura?

–Nahi bai!

–Orduan, non da
arazoa?

–**Aitu**, Txori, zugaz
konfiantzea daukada-
nez, esan egingo deustut:
paretan naz plazan ume artean,
eta herejiak esaten deustiez kan-
tuz. Hasi orduko, buru handia.

–Luki, entendimentuz jan-
tzia be esaten deustue.

–Ez leku guztietan, Olai-
zola pelotarien herrian:
buru handia, entendimen-
tu gabia. Gero, buru handia
eta tripontzia; baita zurr-
teroa be; jakina, begi go-
rria be bai eta urde tri-
pontzia. Txori, faltau-
faltau egiten deustie.
Zer dala plaza erdian
behin eta barriro en-
tzutea: buru handi,
zurrutero, tripandi.

Nik uste dot, Olentzerori baino neuri egi-
ten deustiela irain.

–Luki, urten egizu depretik, umeak
pozarren ibiltzen dira; euskal mitologiako
pertsonea bihurtzen zara...

–**Zentaile bat!** Holako Olentzeroak
gargantua txolindua dirudi.

–Esan egitea be! Andrea bere zeure
eretxikoa dozu, Luki?

–Gure Mari poz-pozik senar famosoa-
gaz sartzen dala izara artean-eta.

–Hi haz hi! Umeak poz-pozik, andrea
zoriontsu...

–Hara Txori, andreak gura bai Olentze-
roren papela antzeztu daidan, **baia**...
Gabon egunean, ekinean ibiltzen jat: *Ha-
men gure Olentzero*; handik 15 egunera
hasten da: *Hamen gure Olentzero buru
handia*, eta hasarratu ezker: *Hamen gure
buru handia*.

–Tira ba! Atzenean, bai ala ez?

–Baietz ze, gure andreak badaroa hila-
bete -sukaldean berari tokatzen jakone-
an- morokila, taloa, odolosteak eta urdaia
prestatzen. Potolotutea komeni jat, hurre-
an, Olentzeroren biribil itxurea hartu dai-
dan.

Hau tragedia Txori: *buru handi, tri-
pontzi, zurrutero*, batzuk, eta emaztea nire
gorputza koipez beteten. Agurrean,
emoistazu mosutxu bat kontsolau nai-
ten!

–**Baitte** zereko zera be!

 **aisia** RESTAURANTE

BASERRI menua

1. txerri txiki bat, 2. txerri txiki bat, 3. txerri txiki bat, 4. txerri txiki bat, 5. txerri txiki bat, 6. txerri txiki bat, 7. txerri txiki bat, 8. txerri txiki bat, 9. txerri txiki bat, 10. txerri txiki bat

29 €

guztira 29 €
(baita 29 €)



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOTERAPIA


**Zenbat urte
beteko ditu Arroeta
mendi taldeak?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:

–Telefonoz: 94 452 34 47

–e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna: 100 lagundik gora
Irabazlea: Oihane Ziordia



Etxeko sukaldaritza

Azpizuna plantxan, gaztainazko saltseagaz

Maite Lekerika, sukaldaria

Osagaiak (lau lagunentzat):

- Kilo bat azpizun (txahalkia edo txarrikia)
- Kilo erdi gaztaina
- Litro erdi esne
- 200 ml esnegain
- 100 g gurin
- Ura eta gatz

Prestatzeko area:

Azpizun-xerrak gustura ebagiko doguz. Plantxan orio tanta batzuk bota eta okela erreko dogu. Gatz apur bat botako dogu.

Saltsea:

Gaztainak, ur ugaritan, 10 minutuan izango doguz egosten gatz apur batez. Hotzitu eta azala kenduko deutsegu. Lapiko baten esnea, gurina eta gatz apur bat ipiniko doguz. Irakiten hasten danean, gaztainak gehitu eta, su ezitan, 10-12 minutu izango dogu egosten. Bigun dagozanean, esnegaina bota eta irabiau dogu.



Koko birrinduzko flana


Maite Lekerika, sukaldaria

Osagaiak (zortzi lagunentzat):

- 6 arrautza
- Litro erdi esne
- 200 g azukre
- 200 g esne kondentsauta (azukre bako)
- 100 g koko birrindua (ordu baten izango dogu esnetan, beretzen)
- Karamelu urtua

Egiteko area:

Karamelua molde baten igurtziko dogu. Osagai guztiak ondo irabiau eta nahasketa moldera botako dogu. Flana ordu erdi inguruan izango dogu laban, Maria bainuan (alde aurretik labea 180 gradutan berotuko dogu 15 minutuan). Orratz luze bat sartuko dogu, flana eginda dagoan jakiteko; eta beharrezkoa bada, apur bat gehiago izango dogu laban. Hotzitu, moldetik atera eta izozki-bola pare batek lagunduta zerbitzatuko dogu.



Ercoreca
supermerkatuak

Flikadura adituak

Bakoren bazterra

Ardo eta nahien 2010eko zerrenda

Iñaki Suárez, sumillera

Goi fidelitatea filmean galdetu zioten John Cusacki (protagonista da, musika denda baten eta disko bilduma ederraren jabe) zeren arabera antolatzen zituen diskoak: alfabeto hurrenkera, estiloak, ekoizpen urteak, disko etxeak... Hona erantzuna: modu autobiografikoan, disko bakoitza bere momentuan, bizitzan toki zehatz bat harturik.

Ardoarekin antzeko zerbait gertatzen da, aldeak alde; ardo zerrenda prestatzean, aukera sorta bat presta daiteke baldin eta azken proposamenari koherentzia emango dion hariren bat badago. Ardo zerrenda oso desberdinak ikusi ditut, baina ez ardo markengatik, baizik eta ardoak proposatzeko modu eta egituragatik. Batzuk oso klasikoak; besteak oso abangoardistak. Batzuk oso zabalak; besteak laburrak. Baina denek antzeko kontzeptua dute oinarrian: atsegina eta une onak sortzea.

Nik udazkeneko koloreak ditut gogo-ko, udaberriko argitasuna, udako poztasuna eta neguko malenkonia. Beraz, itxaropen eta gustu guztiak aseko dituen kolore eta nahi paleta bat nahi nizukeke proposatu 2010erako. Gure ardo zerrendak apardun bikainak izango ditu, mingostasuna apur bat markatuko digutenak, baina gogo piztu aurten aurrera ekarriko digutena jateko. Zuri freskoak, zorian pindarra emango digutenak ataka gaintzeko. Gorriren bat, zalantza uneetarako, segurua baita izango direla halako uneak. Beltz arinak, egunez eguneko menderatzeko behar den kemenari etengabe eusteko. Eta pisu handiko beltzak, pisuko uneak zigilatzeke. Uste dut ez dela esan behar ardo gozoak ere izango direla, ondo dakizuenek, hain gogokoak ditudanak ihes une horietarako, zeinek, dena esan behar da, lege aginduta egon beharko luketen. Zoratu gabe, gure ardo zerrendak bizirik egon behar du, aikorlagunok, berritasunei irekia, eta klasikoekiko leial, hemen denetarik eta gustu guztietarako baitago. 2010. urtea urte ona izango da. Nik hala nahi dut zuentzat. Zorionak eta on egin.



Ardo Txerri
Ardo Txerriaren ardoak gure
Ardo Txerriaren
Egoz Berdegandien Ardoak
Ardo Txerriaren
Ardo Txerriaren

LEANDRO LAMPETA
HABACETECIA. HERRIATUTECIA.
HABACETECIA. HERRIATUTECIA.

LEANDRO LAMPETA
HABACETECIA. HERRIATUTECIA.
HABACETECIA. HERRIATUTECIA.

LEANDRO LAMPETA
HABACETECIA. HERRIATUTECIA.
HABACETECIA. HERRIATUTECIA.

TALLERES JUAN ANDRÉS
TALLERES JUAN ANDRÉS
TALLERES JUAN ANDRÉS

Begoña
Begoña
Begoña

Goiri78 s.l.
Goiri78 s.l.
Goiri78 s.l.



ORIGIN
LAU KUKI TABERNA
 KEMAMPUAN KALIAN
 BUKAN HANYA
 TETAP ADALAH

FINA ATHLETIC
 KUTI HANDEKIA



–*Begi berriak...* K. Lertxundi
–*Kalea (2).* K. Junkera

Sudokua

5				6	8			
	3	6	7					
	8		3					7
		8	2		1			
	9			5				
				9		1		
	6				2	8		
3			9			7	6	
		5	6	3			9	



1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
31	32	33	34	35	36	37	38	39	40
41	42	43	44	45	46	47	48	49	50
51	52	53	54	55	56	57	58	59	60
61	62	63	64	65	66	67	68	69	70
71	72	73	74	75	76	77	78	79	80
81	82	83	84	85	86	87	88	89	90
91	92	93	94	95	96	97	98	99	100

GUCCIANI
servizi deportivi, s.r.l.
viale dell'Industria, 1 - 40138 Bologna
- TEL. 051/261111 - FAX 051/261112


IMMUNOCOR-LIQUIL KINOLINGUE
Tel. 041/5071131 - Fax 041/507114



PTIKA IKUSLAN
 Ulu Kalina, 3
 KARASORI
 Tel. 99 552 2019



**Gure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**



...maila handiko teknologiarekin.

[illegible]

AURTENETXE, S.A.

Rekreatibiz eta lorezaintzerako tresneria saldu eta konpontzen dugu



Kontsezionarioa Bizkaian

HUSCHER 



Kubota



Banatzalea:


 Eco-Mini



STIHL




Viking



OREL



HONDA



Larunbatetan,
eukerako
trenerenaren
azoka

10.00-13.00

 berrie

Arcebalde auzoa, 105
48196 Lezama (Bizkaia)
Tel: 94 455 62 66
Faxa: 94 455 65 66

Sagcan Pol., 34. pah
Lauaxeta Olerkari
48100 Mungia (Bizkaia)
Tel. eta faxa: 94 674 83 62

Autonomía, 57
48012 Bilbao (Bizkaia)
Tel: 94 427 29 18
Faxa: 94 427 29 18